

IRAKIAR EMAKUMEAK ERRESISTENTZIAN, GERRA , ENBARGO ETA INBASIO BATEN ONDOREN

Irakiar herriak gerra gogorra jasan izan du. Bigarren Mundu Gerran bota ziren beste bonba, bider 7 jaurti izan dira bertan ; hamahiru urte iraun duen enbargoari aurre egin behar izan diote, herritarren artean 1.800.000 biktima egon dira; eta gaur egun urte eta erdi daraman inbasioak suntsipena besterik ez die ekarri. Eraso hauek gizarte osoak jasan behar izan ditu eta jasaten ari da, baina egia da ere, gatazka guztietan gertatzen den bezala, emakumeak izan direla erasoena.

Arabiar munduan, Iraken, emakume irakiarrek rol garrantzitsua zuten lortua. 70 hamarkadan Irakiar emakumeak Unibertsitatean eta ordaindutako lan munduan sartu ziren. Irakiar Emakume Federakundea sortu zen (1968) eta bertan emakume helduen % 30a elkartzan zen. Elkarrekin honen helburu nagusiak honako hauek ziren: heziketa, prestakuntza politikoa eta ekonomia, beste herrialde desberdinetako emakumeekin harremanak izatea eta Palestinar herriarekin elkartzuna adieraztea. Emakumeak lan politikoan ere sartu ziren; Parlamentu Nazionalako 250 kideetatik 27 emakumek betetzen zituzten ministeritzako postuak. Azken finean, emakumearen garapena bultzatzen zuten gobernu politikak eta osasuna eta hezkuntza bezalako arlo estrategikoetan egindako inbertsio publikoek, genero arloan, munduko herri ez garatueneren artean, posturik hoberenetarikoa kokatu zuten Irak. Irak, berdintasunaren paradisua izan ez bada ere, emakumeen eskubideetan, lan politikorako eta sozialerako prestakuntzan eta partehartzean lorpenak egon direla esan behar da, beste arabiar herrialdeetako emakumeekin konparatuz.

Golkoko gerraren ondorioz, 13 urte iraun duen enbargo eta zigor ekonomikoen ondorioz herrialdearen ekonomiak atzera pauso handiak egin ditu. Denok dakigunez, edozein herritako ekonomiak porrot egiten duenean, emakumezkoak izaten dira aurrenekoak egoera hau pairatzen, eta honen ondorioz emakumezkoak izan ziren lan postuetatik kaleratu zituzten aurrenekoak. Iraken, emakumezkoek makina bat lanpostu galdu zuten, batez ere osasun eta hezkuntza arloetan. Enbargoak materialen gabezi handia ere ekarri zuen. Honek atzerapen handia suposatu zuen osasuneko asistentzian eta amen heriotza tasa handitu egin zen eta, honez gain, urte hauetan gaixotasun berriak sortu ziren. Urte askotan jasandako zigor ekonomikoek eta eguneroko bonbardaketek senitarteko gatazkak eta emakumezkoen kontrako tratatu txarrak gehitu zituzten. 13 urte hauetan zehar emakumezkoen lana, batez ere, biziraupenera murriztu zen eta emakumezkoek lortutako lorpenetan atzerapen ikaragarria eman zen.

Urte eta erdiko inbasioaren ondoren Irakiar herriaren baldintza ekonomiko eta sozialak asko okertu dira. Beste gatazka askotan gertatzen den bezala, emakumeentzako ordaindu gabeko eginbehar gehiago suposatu du. Ohiko bizimoduaren baldintzen hondaketaren ondorioz, beraien ardura familiarrak gehitu egin dira (beraiek baitira janaria bilatu, janaria prestatzeko ura egosi, haur traumatizatuak eta zaurituak zaintzearen arduradunak...) Honekin batera, gatazkaren aurretik nagusia zen funtzionari publikoaren sektorearen desagerpena, arlo sozialean bereziki, eta modu bikoitzean izan da kaltegarri.

Emakumeak eskubideak eta segurtasun pertsonala eskatzen ari dira, esklabotza, bahiketak eta bortxaketa kopurua modu beldurgarrian igotzen ari baita (okupazioaren lehenengo 4 hilabeteetan erasoak jasan dituzten emakumeen 400 bat kasu egon dira). Emakume asko beldur dira kalera ateratzeko, neskatxak ez dira eskolara joaten segurtasun faltagatik eta familia askok debekatu egiten die emakumezkoek gizonik gabe kaletik ibiltzea. Emakumeek bortizkeria ugaltzearen errua Baas alderdiaren gobernuaren

suntsiketak suposatu duen desintegratio sozialari botatzen diote, fundamentalismo islamikoaren ugaltzeari eta egunero-egunero okupazio indar eta Irakiar indarren artean ematen ari diren borrokei. Segurtasun falta honek emakumeei arlo politikoan eta sozialean lan egiteko eta antolatzeke askatasuna galarazten die. Emakumezkoak erabaki politikoak hartzetik kanpo daude. Beraien eskubideen alde bi frontetan ari dira borrokatzen, familia barruan eta Koalizioaren Behin behineko Agintearen aurka.

Emakume asko nekazaritza munduan ari dira lanean beraien familientzat janaria lortu nahian. Emakume hauek eragozpen askori egiten diote aurre, landa askotan oraindik ere bonbak aurkitzen dira eta. Gainera, Irakeko ekonomia privatizazioaren bidea hartzen ari da eta nekazaritza esportaziorako prestatzen ari da. Aurrekoaren eraginez lur-sail gehienak monokultiboari begira prestatzen ari dira eta honek familien beharrak asetzea galarazten du.

Osasungintzan krisi larria dago eta osasun zerbitzuen kontrol militarra. Ezgaitasunak, infekzioak, amen hilkortasuna, desnutzizio kasuak eta gaztetxoek haurdunaldiak ugaltze egin dira. Honi guztiari pobrezia handitzea gehitu behar zaio, emakumezkoengan bereziki eragiten duena, prostituzioa ere gehitu egin da eta baita sexu bidezko gaixotasunak ere. Egoera hauek Irakiar emakumezkoen osasunaren egoerarentzako mehatxu larriak dira.

Emakumezkoak, gaur egun, langabezian daude. Gobernu Interinoak ez du agindutakoa bete eta Irakiar gehienak, emakumezkoak eta gizonezkoak, langabezian daude. Baas alderdiaren gobernuak zeukan segurantzaren sozialaren sarea desegin da eta puztu egin da emakumezkoek ordaindu gabe egiten duten lana, beraiek hartu baitute gobernuari dagokion lanaren ardura: elikagaiena, osasunarena, heziketarena eta gaixoen zaintzearena besteak beste. Irakiar gizartean oso ezaguna egiten zaigun egoera ematen ari da, hain zuzen ere sistema neoliberal bat herrialde batean sartzen denean gertatzen dena: privatizazio planak, merkataritzaren liberalizazioa, gastu sozialen murrizketa...Sistema politiko-ekonomiko honek gizarte desberdinetan modu desberdinean eragiten du errealitate bakoitzaren arabera; emakume Irakiarrengan askoz ere era larriagoan eragiten du, beraiek (mundu osoan bezala) ez baitira gizonezkoen egoera berdinean aurkitzen.

Dena den, Irakeko emakume asko antolatzen ari dira, beraien eskubideen alde borrokatzeke eta familien oinarrizko beharrak asetzeko. Kalera ateratzen ari dira, manifestatzen, borrokatzen, esate baterako, oso gauza logiko bat nahi dutelako, Irakiar herriak sortuko duen sistema berriaren eraiketan modu aktibo batean parte hartzea.

Guk, emakume feministak garenez, eta Gipuzkoako Gerraren Aurkako Plataformako kideak, aurtengo martxoaren 8an emakume hauei guztiei omenaldi bat egin nahi diegu, erakutsi duten indarra eta erresistentzia grinagatik, arlo guztietan erakutsi ere. Eta jarraituko dugu dominazio patriarkalean oinarrituta egongo ez den mundu baten alde, herri aberastuek munduko beste herrien zapalketa militar eta ekonomikoan oinarrituko ez den mundu baten alde

Alizia, M^aJose, Coro, Olga, Gemma eta Manoli (Gipuzkoako Gerraren Aurkako Plataformako Emakumeak)